

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Departamentua:** 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO  
**Atala:** 0501 - Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Zerbitzu Orokorrak  
**Programa:** 010 - Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Zerbitzu Orokorrak  
**Funtzionala:** 920 - Administrazio orokorra

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Diru-sarrerak eskuratzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Berdintasunaren arloan, Departamentuaren eskumeneko diren foru-politika guztietan genero-ikuspegia eta tratu berdintasuna txertatzen laguntzea da programaren xedea.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua argi eta garbi diruz laguntzen duen departamentua denez, laguntzen deialdietan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bultzatzen duten baloratzeko irizpideak txertatzea bultzatzen da.

Era berean, administrazio-kontratazioaren arloan, 4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektorre Publikoaren obra kontratuaren klausula sozialak sartzeari buruzkoa, eta 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzeari buruzkoak, aipatzen dituzten emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko klausulen pleguetan txertatzea zaintzen da.

**Kuantifikazioa:** 0,00 ( % 0,00 )

**Ordainketa kredituak:** 0,00 ( % 0,00 )

**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Departamentua:** 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO  
**Atala:** 0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 100 - LK- Lurraldearekiko Konpromezua  
**Funtzionala:** 433 - Enpresa garapena

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Diru-sarrerak eskuratzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Ekintzailatza-jarduerari buruzko GEM txostenak, Gipuzkoako lehiakortasun-txostenak eta EUSTATEk bildutako datuek generoari lotutako desberdintasunak identifikatzen dituzte, emakumeen ekintzailatza-maila txikiagoarekin eta haiek sortutako enpresek finantzaketa lortzeko zailtasun handiagoekin lotuta, bai eta soldata-arrakala, lan-prekarietate handiagoa eta zuzendaritza-postuetan ordezkariatza txikiagoa izatearekin ere.

2023ko datuak aurreko urtearekin alderatuta izan duen bilakaerak erakusten du genero arrakala murriztu egin dela hasierako faseko jardura ekintzailearekin alderatuta, eta, beraz, emakume gehienak jaio diren ekimenetan daudela. Ez, ordea, arrakala 14,4 ppkoa den negozio finkatuetan. Emakumeek gizonen baino neurri txikiagoan dituzte ekintzailatzaren aldeko pertzepzioak, eta ekiteko asmoa duten emakumeen pisua gizonena baino txikiagoa da oraindik. Hori, besteak beste, soldata arrakalan islatzen da (-%22,4), eta horretan eragina du lanaldiak, denbora partziala ohikoagoa baita emakumeen artean gizonen artean baino. Sektoreei dagokienez, industriak maskulinizatutako sektorea izaten jarraitzen du, eta Euskadin gizonen % 80 baino gehiago okupatuta dago. Hori, besteak beste, desberdintasun hauekin islatzen da:

- Gipuzkoan, hasierako fasean dagoen jardura ekintzaileak joera aldatu du, eta emakumeen ehunekoa handiagoa da. Hala ere, sortzen ari diren ekimenen kasuan gizonen ehunekoa handiagoa da oraindik ( % 56,9), bai eta finkatutako negozioen kasuan ere (gizonak % 57,2 dira).
- Euskadin, gizonen abiarazitako proiektuen batez besteko kapitala (41.350 €) emakumeena baino 2,4 aldiz handiagoa da (17.201 €). Emakumeek oztopo handiagoak aurkitzen dituzte ekintzailatza-proiektuetarako kanpoko finantzaketa lortzeko, eta horrek mugatu egiten ditu ekiteko aukerak
- Emakumeek lan baldintza txarragoak dituzte: soldata txikiagoak jasotzen dituzte ( % 22,4ko soldata arrakala) eta partzialtasun, behin-behinekotasun eta abarri aurre egin behar diete.
- Emakumeek ordezkariatza txikia dute industriako zuzendaritza eta teknikari postuetan ( % 26)
- Emakumeek sektore feminizatuetan kontzentratzeko joera dute, errentagarritasun txikiagoarekin eta lan baldintza kaskarragoekin

**Kuantifikazioa:** 529.290,85 ( % 1,21 )

**Ordainketa kredituak:** 384.290,85 ( % 1,28 )

**Datozen urteetako gastuak:** 145.000,00 ( % 1,05 )

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Departamentua:** 05 - EKONOMIA SUSTAPENeko ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO  
**Atala:** 0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 110 - Eskulangintza Sektorearen Sustapena  
**Funtzionala:** 433 - Enpresa garapena

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Diru-sarrerak eskuratzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Ekintzailertza-maila txikiagoak eta enpresa-garapenerako zailtasunak egotea (finantzaketa lortzea eta enpresa-tamaina, batez ere); beraz, sektorearen kalitatezko eta prestigiozko enplegua lortzera bideratutako jarduerak pertsonen garapen pertsonala, profesionala eta soziala ekarriko du, autonomia ekonomikoa eta pertsonala sustatuz, bai eta gizarteari egindako ekarpena ikusarazten eta balioesten laguntzea ere.

|                                   |      |            |
|-----------------------------------|------|------------|
| <b>Kuantifikazioa:</b>            | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Ordainketa kredituak:</b>      | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Datozen urteetako gastuak:</b> | 0,00 | ( % 0,00 ) |

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Departamentua:** 05 - EKONOMIA SUSTAPENeko ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO  
**Atala:** 0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 120 - Internazionalizazio Jarduketa Sustatzea  
**Funtzionala:** 433 - Enpresa garapena

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Diru-sarrerak eskuratzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Basque Trade-k berriki egindako ikerketa baten arabera, emakumeek enpresa esportatzaileen guztizko enpleguaren % 29 baino ez dute ordezkatzen. Enpresen % 16 soilik dira emakumeak, eta zuzendaritza-taldeak osatzen dituzten pertsona guztien % 31,9 dira (enpresen % 32k ez du emakumerik zuzendaritza-taldean).

Oro har, emakumeen presentzia ez da hain estrategikoak eta erantzukizun txikiagokoak diren lanpostuetan oinarritzen (beste batzuk: finantzarioa, administrazioa...), eta presentzia erlatibo txikia dute diseinuaren, garapen estrategikoaren eta nazioarteko filialen arduradunaren arloetan.

Programa gauzatzean, genero-alderdiei buruzko informazioa eskatzen da, bai antolaketaren ikuspegitik, bai inplikaturako lantaldeen ikuspegitik. Genero-berdintasuneko politikekin lotutako proiektuen puntuazioan balorazio bat dago. Horren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan sentsibiltate handiena duten enpresei lagundu nahi zaie.

**Kuantifikazioa:** 0,00 ( % 0,00 )

**Ordainketa kredituak:** 0,00 ( % 0,00 )

**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Departamentua:** 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO  
**Atala:** 0520 - Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 200 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sustatzea  
**Funtzionala:** 463 - Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

**Beharraren deskribapen xehatua:**

"Emakumeak eta Berrikuntza 2024 eta Zientzialariak zenbakitan 2025, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak argitaratuak, ondorioztatzen dute genero berdintasunaren arloan aurrerapen garrantzitsuak izan diren arren I+G sisteman, oraindik badaudela desberdintasun estruktural batzuk, hala nola promozioan eta egonkortze profesionalean dauden oztopoak, kontziliazioan zailtasunak edo emakume erreferenteen falta lidergo postuetan.

EUSTATEk Gipuzkoan bildutako datu estatistikoek erakusten dute eremu zientifikoan genero-arrakala dagoela. Emakumeek I+Gn duten presentzia gutxiengoa da, 2023an Gipuzkoan I+Gn aritzen diren langile guztien % 36,6 baitira (azken datua Eustatena da 2024/11/15). Diziiplina zientifiko batzuetan, ingeniarietan eta beste sektore batzuetan, hala nola enpresetan, arrakala are handiagoa da.

Enpresetan eta IPSLn (irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak) I+Gn dedikazio osoa duten langileak I+Gn diharduten langile guztien % 72 dira, eta emakume gutxiago daude ( % 37). Maila profesionalaren arabera aztertuz gero, % 31ra jaisten da ikertzaileen artean eta % 29ra teknikarien artean, eta batez bestekoa % 40ko konpentsatzen da laguntzaileen mailarekin. Gainerakoetan, Administrazio Publikoan eta Goi Mailako Irakaskuntzan, ordezkartza % 50etik gorakoa da, nahiz eta ikertzaileei dagokienez % 46-48 bitartekoa den, teknikarien eta laguntzaileen artean emakumeen presentziarekin konpentsatuta ( % 62-75 inguru).

Diziiplina zientifikoari dagokionez, ingeniarietan emakumeen presentzia askoz txikiagoa da ( % 28), eta nabarmentzekoa da diziiplina horren barruan % 24 baino ez direla emakumeak teknikarien artean, % 29 ikertzaileen artean eta % 38 laguntzaileen artean. Gainerako diziplinetan presentzia % 50etik gertu edo gorakoa da, baina batez ere teknikariei eta laguntzaileei dagokienez.

Aurreko desberdintasunak programak finantzatutako jardueretan islatzen dira, nahiz eta Fellows Gipuzkoaren Erakartze programak emakumeen presentzia handiagoa izan: 2023tik aurrera emandako Fellows laguntzen % 61 emakume ikertzaileentzat izan dira. Ikertzaileak bigarren urtean Ikerbasquek ebaluatuko ditu, eta 2024an 5 hautagai posibletik (3 emakume, 2 gizon) 3 Ikerbasquera igaroko dira (emakume 1 eta 2 gizon).

|                                   |            |            |
|-----------------------------------|------------|------------|
| <b>Kuantifikazioa:</b>            | 170.000,00 | ( % 0,92 ) |
| <b>Ordainketa kredituak:</b>      | 170.000,00 | ( % 1,13 ) |
| <b>Datozen urteetako gastuak:</b> | 0,00       | ( % 0,00 ) |

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Departamentua:** 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO  
**Atala:** 0520 - Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 210 - Enpresa berrikuntza  
**Funtzionala:** 422 - Industria

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

**Beharraren deskribapen xehatua:**

2024an, emakumeek Euskadiko biztanleria aktiboaren %48,2 osatzen zuten, aurreko urtearekin alderatuta igoera arina suposatuz. Emakumeen okupazioa hazten jarraitu zuen, eta gizonen okupazioa egonkor mantendu zen edo apur bat jaitsi zen. Emakumeen langabezia-tasa 0,6 puntu jaitsi zen, %7,6ra iritsiz; gizonen kasuan, 0,4 puntu jaitsi zen, %7,3ra arte.

Enpleguaren sektorekako banaketak generoaren arabera alde nabarmenak erakusten jarraitzen du. Emakume okupatuaren %87,5 zerbitzuen sektorean ari da lanean, eta sektore horretako enpleguaren %59,9 ordezkatzeko dute. Beste sektoreetan duten presentzia askoz txikiagoa da: %20,9 industrian, %15,5 eraikuntzan eta %13,0 lehen sektorean.

Genero Berdintasunaren Indizeari dagokionez, Euskadik 74,5 puntu lortu zituen 100etik, Eustatek argitaratutako azken edizioaren arabera (2021eko datuak, 2024ko maiatzaren 22an argitaratuak eta 2025eko urriaren 2an egiaztatuak). Datu horiek Euskadi EB-27ko batez bestekoaren gainetik kokatzen dute dimentsio guztietan, baina oraindik Estatuko batez bestekoaren (76,4) azpitik dago. Gipuzkoak nabarmendutako posizioa mantentzen du EAE barruan, Bizkaia eta Arabaren gainetik. Hala ere, emakumeek botere ekonomiko eta sozialeko postuetarako sarbidean oraindik ordezkartza urria dute, eta horrek desberdintasun nabarmenak mantentzen ditu.

**Kuantifikazioa:** 0,00 ( % 0,00 )

**Ordainketa kredituak:** 0,00 ( % 0,00 )

**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Departamentua:** 05 - EKONOMIA SUSTAPENEN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO  
**Atala:** 0530 - Proiektu Estrategikoetako Zuzendaritza Nagusia  
**Programa:** 300 - Proiektu Estrategikoak  
**Funtzionala:** 439 - Beste jarduketara sektorial batzuk

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Enplegu duina bermatua izatea da gure gizartean pertsonen arteko berdintasuna sustatzeko bide garrantzitsuenetako bat.

Gipuzkoako gizarte-sarean identifikatutako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei dagokienez, egiaztatu da emakumeen langabezia-tasa zertxobait handiagoa dela, eta, aldi berean, okupazio-tasa txikiagoa dela gizonena baino, eta, gainera, intzidentzia handiagoa duela pobrezian. Emakumeen artean, enplegua lortzeko oztopo gehiago dituzten kolektiboak daudela hauteman da (emakume migratzaileak, 45 urtetik gorakoak, desgaitasuna dutenak, beren kargura pertsonak dituztenak, etab.). Era berean, emakumeek ordezkartza txikia dute gizarteratze enpresetan.

2022-2024 ekitaldietarako Elkar-EKIN Lanean programaren esparruan, egiaztatu da prestakuntza-ibilbide bat egin duten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeak prestatutako pertsonen %62 direla, eta programan parte hartu duten pertsonen artean lan-munduan sartutako emakumeak ez direla guztizkoaren %55 baino gehiago. Horrek esan nahi du lan munduan sartutako emakumeen ehunekoa txikiagoa dela lan munduan sartu ahal izateko prestakuntza jaso duten emakumeena baino. Beraz, lehentasunezkoa da aipatutako ehunekoak hobetzea aurrekontu programa hau gauzatuz, lan munduan sartutako emakumeen ehunekoa egungoa baino handiagoa izan dadin azpimarratuz. Emakumea lan munduan sartzeko arazo nagusitzat identifikatu da bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egiteko zailtasuna, nahiz eta dagokion prestakuntza jaso duen. Horrez gain, zailtasunak aurkitu dira lanpostuetara joateko behar den garraio publikoa ez edukitzeagatik. Elkar-EKIN Lanean 2025-2026 programan parte hartzen duten emakumeen ehunekoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, adierazle espezifiko batzuk gehitu dira.

|                                   |      |            |
|-----------------------------------|------|------------|
| <b>Kuantifikazioa:</b>            | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Ordainketa kredituak:</b>      | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| <b>Datozen urteetako gastuak:</b> | 0,00 | ( % 0,00 ) |